

Bizkaiko Foru Aldundiaren ____/2018 FORU DEKRETUA, uztailaren 3koa. Honen bidez, ezaugarri bereziko ondasun higiezin katastro-balioa finkatzeko arau teknikoak onartzen dira.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia ____/2018, de 3 de julio, por el que se aprueban las Normas Técnicas de Valoración Catastral de los bienes inmuebles de características especiales.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 1. artikuluan ezartzen denaren arabera, haren helburua Higiezin Foru Katastroa arautzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoko ondasun higiezin erregistro administratiboa den heinean, eta arautzea, halaber, ondasun horien balioztatzea, indarrean dagoen araudiak ezarritako ondorioetarako.

El artículo 1 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia señala que es objeto de la misma regular el Catastro Inmobiliario Foral como registro administrativo de los bienes inmuebles del Territorio Histórico de Bizkaia, así como regular la valoración de los mismos a los efectos establecidos por la normativa vigente.

Testu beraren 5.1 artikuluekin bat, ondasun higiezinak, katastroari dagokionez, izaeraren arabera sailkatzen dira, honela: hiri-ondasun higiezinak, landa-ondasun higiezinak eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

De acuerdo con el artículo 5.1 del mismo texto, los bienes inmuebles se clasifican catastralmente, según su naturaleza, en bienes inmuebles urbanos, rústicos y de características especiales (BICES).

Bestalde, 3/2016 Foru Arauaren 24.3 artikulua ezartzen du erregelamenduz ezarri behar direla ondasunen katastro-balioa finkatzeko kontzeptuak, erregelak eta gainerako faktoreak jasotzen dituzten arau teknikoak, foru arauan ezarritako irizpideen arabera eta higiezin ezaugarri intrintseko eta estrintsekoak kontuan hartuta.

Por su parte, el artículo 24.3 de la Norma Foral 3/2016 prescribe que reglamentariamente deben establecerse las normas técnicas que contengan los conceptos, reglas y factores que, conforme a los criterios establecidos en dicha Norma Foral y en función de las características intrínsecas y extrínsecas que afectan a los inmuebles, permitan determinar su valor catastral.

Foru dekretu honen bidez, bete egingo dira

El presente Decreto Foral viene a dar



aurreikuspen horietako batzuk; izan ere, foru arauaren 5. artikuluan adierazten diren hiru ondasun higiezin motetako baten katastrobalioa finkatzeko arau teknikoak jasotzen ditu, hain zuzen ezaugarri bereziko ondasun higiezinena.

Era horretan, dekretu berriak aukera ematen du honelako ondasunek hiriko eta landako ondasun higiezin aldean dituzten berezitasunei erantzuteko. Edonola ere, kontuan hartu behar da araua mugatu dela ezinbestekoak diren berezitasunetara; horren adibide garbia da posible izan den kasu guztietan xedatu dela hiri-ondasun higiezinarentako ezarritako balioespen-erregela berak aplikatzea. Horri erantzuteko, ezaugarri bereziko ondasun higiezin eraikuntzetan, eraikuntza konbentzionalak eta bereziak bereizten dira, eta, gehienetan, azken eraikuntza motarako ezarri dira balioespen-arau espezifikoak; eraikuntza konbentzionalen balioa finkatzeko, berriz, oro har aurreikusten da hiri-ondasun higiezinarentako ezarritako arauak aplikatzea.

Bestalde, ahal den neurrian, saiatu da honelako ondasun higieziari aplikatu beharreko balioespen-irizpideak sistematizatzen eta homogeneizatzen, betiere kontuan hartuta 3/2016 Foru Arauaren 9 artikuluan ezartzen

cumplimiento a dichas previsiones, en cuanto contiene las normas técnicas aplicables a la determinación del valor catastral de una de las tres clases de bienes inmuebles que recoge el artículo 5 de la Norma Foral, el de los bienes inmuebles de características especiales.

La nueva regulación permite así, en primer lugar, atender las especialidades que presentan este tipo de bienes respecto de los bienes inmuebles urbanos y de los rústicos. Debe tenerse en cuenta, no obstante, que la norma se ha limitado a establecer aquellas singularidades que resultan imprescindibles, muestra de lo cual es que, allí donde ha sido posible, dispone la aplicación de idénticas reglas de valoración que las establecidas para los bienes inmuebles urbanos. A ello responde la diferenciación de las construcciones de los bienes inmuebles de características especiales en convencionales y singulares y el establecimiento, en la mayoría de los casos, de normas de valoración específicas únicamente para estas últimas, mientras que, con carácter general, en la valoración de las construcciones convencionales se prevé la aplicación de las normas establecidas para los bienes inmuebles urbanos.

Por otra parte, se han tratado de sistematizar y homogeneizar, en lo posible, los criterios de valoración aplicables a estos bienes inmuebles, teniendo en cuenta, no obstante, las características propias de cada uno de los tipos



diren ezaugarri bereziko ondasun higiezinotako mota bakoitzak dituen ezaugarri propioak. Horretarako, dekretuaren bigarren kapitulua osatzen duten zazpi ataletan, balioa finkatzeko arau espezifikoak —eranskinean jasotako koefizienteekin osatzen direnak— eta balio-galerarako koefiziente zuzentzaile bereziak ezartzen dira; haien bidez, posible da energia elektrikoa ekoiztekoak, gasa ekoiztekoak eta petrolioa fintzekoak diren ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren balioa finkatzea. Horiez gainera, aurreikuspen espezifikoak daude ezaugarri bereziko ondasun higiezinak diren elementu hauen balioa finkatzeko: presak, ur-jauziak, urtegiak, bidesaria duten autobide, errepide eta tunelak, aireportuak eta merkataritzako portuak.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen

de bienes inmuebles de características especiales incluidos en los grupos diferenciados que prevé el artículo 9 de la Norma Foral 3/2016. A tal efecto, el Decreto establece, en las siete secciones que integran su capítulo segundo, tanto las normas específicas de valoración, que se completan con los coeficientes incluidos en el Anexo, como los coeficientes correctores diferenciados para considerar la depreciación, disposiciones que permiten determinar el valor de los bienes inmuebles de características especiales destinados tanto a la producción de energía eléctrica, como a la producción de gas y al refinado de petróleo. Igualmente contiene las previsiones específicas para la valoración de las presas, saltos de agua y embalses, las autopistas, carreteras y túneles de peaje y los aeropuertos y puertos comerciales que constituyan bienes inmuebles de características especiales.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Asimismo se han observado los trámites



orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018ko uztailaren 3ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 3 de julio de 2018,

DISPONGO:

I. KAPITULUA

Arau orokorrak

1. artikulua. *Helburua eta aplikazio-eremua.*

Foru dekretu honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 9. artikuluan definitzen diren ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro-balioa finkatzeko arau teknikoak onartzea.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren balio-txostenetan, higiezin horien balioa finkatzeko

CAPÍTULO I

Normas Generales

Artículo 1. *Objeto y ámbito de aplicación.*

Es objeto de este Decreto Foral la aprobación de las normas técnicas aplicables para la determinación del valor catastral de los bienes inmuebles de características especiales definidos por el artículo 9 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

Las ponencias de valores de los bienes inmuebles de características especiales



oinarrizko balioak eta irizpideak jasoko dira, foru dekretu honetan jasotako arauen arabera eta eranskinean eraikuntza berezietarako ezarritako balio-koefizienteei buruzko koadroaren arabera.

recogerán los valores básicos y criterios para la valoración de los mismos de acuerdo con lo establecido en las normas contenidas en el presente Decreto Foral y en el cuadro de coeficientes del valor de las construcciones singulares que recoge su Anexo.

2. artikulua. *Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.*

Katastroan sartzeko, ezaugarri bereziko ondasun higiezinak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 9. artikuluan definitutakoak; artikulua hori garatu egin da gero, ekainaren 28ko 118/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamenduaren 5bis artikuluan.

Artículo 2. *Bienes inmuebles de características especiales.*

A efectos de su incorporación al Catastro, se entiende por bienes inmuebles de características especiales los definidos en el artículo 9 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, desarrollado por el artículo 5bis del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por el Decreto Foral 118/2016, de 28 de junio.

3. artikulua. *Balioen koordinazioa.*

Balio-txostena onartzen den urtean indarrean dagoen merkatu-azterketan oinarrituko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren balio-txosten bakoitzean aplikatu behar diren lurzorua oinarrituko balioak (VBS) eta (VBC) eraikuntzako oinarrituko balioak.

Artículo 3. *Coordinación de valores.*

Los valores básicos del suelo (VBS) y los valores básicos de construcción (VBC) que sean de aplicación en cada ponencia de valores de bienes inmuebles de características especiales se basarán en los obtenidos en el estudio de mercado vigente en el año de aprobación de la ponencia de valores.

Azterketa ekonomikoa egiteko, Bizkaiko

Para el estudio económico se partirá del



Lurralde Historiko osoan aldi berean egin behar den merkatu-azterketa hartuko da oinarri; azterketa horretan, hauek koordinatuko dira: zonako oinarritzko balioak lortzeko metodoa zein eraikuntzaren oinarritzko balioa (VBC) eta balio horien bateratzea.

estudio de mercado a realizar simultáneamente en todo el Territorio Histórico de Bizkaia, en el que se coordinarán tanto el método de obtención de los valores básicos de zona y el valor básico de construcción (VBC), como la unificación de dichos valores.

Udalerriren batean ondasun higiezin merkatua txikia bada, eskualdeka antolatu ahal izango dira, laginen kopuruaren, kokapenaren eta higiezin merkatuan duen antzekotasunaren arabera.

Si en algún municipio el mercado inmobiliario fuera de escasa entidad, se podrán agrupar por Comarcas en función del número de muestras, de su localización y similitud de mercado inmobiliario.

4. artikulua. *Ezaugarri bereziko ondasun higiezin lurzorua balioa finkatzea.*

Artículo 4. *Valoración del suelo de los inmuebles de características especiales.*

1. Dagokion balio-txostenean ezarriko da ezaugarri bereziko ondasun higiezinak okupatutako lurzorua katastro-balioa, eta, txostenean zehazten diren irizpideen arabera, aldeak edo sektoreak bereizi ahal izango dira. Salbuespen dira bidesaria duten autobide, errepide eta tunelak; haietan, kostu unitarioaren moduluan jasoko da lurzorua balioa, eta haren % 5 izango da.

1. El valor catastral del suelo ocupado por el bien inmueble de características especiales se establecerá en la ponencia de valores correspondiente, en la que podrán diferenciarse áreas o sectores según los criterios que se especifiquen en ella. Se exceptúa el caso de las autopistas, carreteras y túneles de peaje, en los que el valor del suelo estará integrado en el módulo de coste unitario y representará el 5 por 100 del mismo.

2. Oro har, lurzorua balio balio unitarioaren arabera finkatuko da, eta honela adieraziko da: hainbat euro lurzorua metro koadroko. Salbuespen dira 4. zenbakian zehazten diren kasuak; kasu horietan balioa

2. Como norma general, el suelo se valorará atendiendo al valor unitario, expresado en euros por metro cuadrado de suelo. Se exceptúan los casos que se especifican en el apartado 4 siguiente, en los que se podrá



finkatzeko, eragin-balioa hartu ahal izango da kontuan, eta honela adieraziko da: hainbat euro benetan eraikitako metro koadroko.

3. Zentral termikoen, parke eolikoan, gasa ekoizteko eta birgasifikatzeko zentralen, findegien, energia hidroelektrikoa ekoizteko zentralen, presen, ur-jauzien, urtegien, aireportuen eta merkataritzako postuen kasuan lurzoruaren balio unitarioa kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: dagokion balio-txostenean lurzoru gordinerako ezarritako balio unitarioa bider alde edo sektore bakoitzeko ezartzen den koefizientea. Ondasun higiezinaren kokapena eta hirigintzako inguruabarren arabera kalkulatu da koefiziente hori. Koadro honetan ondasun higiezin talde bakoitzerako ezarritako mugen barruan egon beharko du koefiziente horrek:

valorar atendiendo al valor de repercusión, expresado en euros por metro cuadrado de construcción realmente existente.

3. El valor unitario de suelo de las centrales térmicas, parques eólicos, centrales de producción de gas y regasificación, refinerías, centrales de producción de energía hidroeléctrica, presas, saltos de agua, embalses, aeropuertos y puertos comerciales será el resultado de multiplicar el valor unitario de suelo bruto establecido en la correspondiente ponencia de valores por un coeficiente, que se fijará en ella para cada área o sector, calculado en función de la localización y de las circunstancias urbanísticas que afecten al inmueble. Dicho coeficiente deberá estar comprendido dentro de los límites que, para cada grupo de inmuebles, se establecen en el siguiente cuadro:



| Higiezin taldea/ Grupo de inmuebles | Mugak/Límites | |
|---|------------------|-----------------|
| | Gutxienez Mínimo | Gehienez Máximo |
| A.1. Zentral termikoak./ Centrales térmicas | 1,00 | 30,00 |
| A.1. Parke eolikoak /Parques Eólicos | 1,00 | 10,00 |
| A.2. Gasa ekoizteko eta birgasifikatzeko zentralak/ Centrales de producción de gas y regasificación | 2,00 | 50,00 |
| A.3. Findegiak/Refinerias | 1,15 | 30,00 |
| A1 eta B. Energia hidroelektrikoa ekoizteko zentralak, presak, ur-jauziak eta urtegiak/ Centrales de producción de energía hidroeléctrica y presas, saltos de agua y embalses | 1,00 | 5,00 |
| D.1. Aireportuak/Aeropuertos | 1,00 | 11,00 |
| D.2 Merkataritzako portuak/Puertos comerciales | 2,00 | 50,00 |

Parke eolikoaren kasuan, dagokion balio unitarioaren arabera finkatuko da lurzorua balioa (hona adieraziko da: hainbat euro lurzorua metro koadroko); parkea zerbitzuan jartzeko beharrezkoa den gutxienezko azalerari aplikatuko zaio balioa. Potentzia instalatuaren megawatt bakoitzeko 550 metro koadro izango da beharrezkoa den gutxienezko azalera; azalera horrek soilik balioko du katastro-balioa finkatzeko.

Presak, ur-jauziak eta urtegien kasuan, higiezinaren azalera 1.000 hektareatik gorakoa bada, kopuru horretatik gorako azalera lurzorua balioari koefiziente hau aplikatuko zaio: 0,80.

En el caso de parques eólicos se valorará el suelo por el valor unitario correspondiente, definido en euros por metro cuadrado de suelo, aplicado a la superficie mínima necesaria para su puesta en servicio. Se entenderá por superficie mínima necesaria, sólo a los efectos de su valoración catastral, 550 metros cuadrados por megavatio de potencia instalada.

En el caso de presas, saltos de agua y embalses, cuando la superficie del inmueble sea superior a 1.000 hectáreas, al valor del suelo que exceda de la misma se le aplicará un coeficiente por exceso de superficie igual a 0,80.



4. Aireportu eta merkataritzako postuen kasuan, hirugarren sektoreko erabilerak edo bizitegi-erabilerak nagusi diren eremuan, benetan eraikitakoaren gaineko eragin-balioa erabili ahal izango da balioa kalkulatzeko. Lurzoruaren ezaugarri-erabileraren eraginaren oinarritzko balioa (**VBS**) izango da aplikatu beharreko balioa, eta 3. artikuluan aipatzen den merkatu-azterketatik lortuko da.

4. En el caso de los aeropuertos y puertos comerciales, el área ocupada predominantemente por usos terciarios o residenciales podrá valorarse por repercusión sobre la construcción realmente existente. El valor aplicable será el valor básico de repercusión (**VBS**) que le corresponda según su uso característico, obtenido del estudio de mercado al que hace referencia el artículo 3.

5. artikulua. *Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren eraikuntza motak.*

Artículo 5. *Tipos de construcciones en los bienes inmuebles de características especiales.*

1. Katastro-balioa finkatzeko, ezaugarri bereziko higiezinaren eraikuntzak konbentzionaletan eta berezietan sailkatzen dira.

1. Las construcciones de los inmuebles de características especiales se clasifican, a efectos de su valoración catastral, en construcciones convencionales y singulares.

2. Hau da eraikuntza konbentzionala: bere ezaugarriak direla-eta hiri-ondasun higiezinaren katastro-balioak finkatzeko araudi teknikoan definitutako eraikuntza motaren batekin identifikatzen dena.

2. Se entiende por construcción convencional aquella cuyas características permiten su identificación con alguna de las tipologías constructivas definidas en la normativa técnica de valoración catastral de los bienes inmuebles urbanos.

3. Hau da eraikuntza berezia: bere ezaugarriak direla-eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren talde bakoitzerako II. kapituluan jasotako eraikuntza motaren batekin identifikatzen dena.

3. Se entiende por construcción singular aquella cuyas características permiten su identificación con alguna de las recogidas en el capítulo II para cada uno de los grupos de bienes inmuebles de características especiales.



4. Eraikuntzaren ezaugarriak direla-eta eraikuntza ezin bada goian adierazitako ezein motarekin identifikatu, aparteko balioespen bat egingo da, dagokion balio-txostenean aurreikusten den balioztatze-metodoaren arabera.

5. Merkatuaren erregulazioa edo arrazoi teknologikoak direla-eta behin betiko funtzionatzeari uzten badiote higiezinaren funtzionaltasuna betetzeko funtsezko elementu diren industria-instalazioek, eta egoera hori kontuan hartu ez bada dagokion balio-txostenean, beste balio-txosten bat onartu ahal izango da; balio-txosten horretan dagokion metodoa erabiltzea, erabaki ahal izango da kontuan hartzea instalazio horiek funtzionatzeari uzteagatik sortutako balio-gutxitzea.

6. artikulua. *Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren eraikuntzen balioa finkatzea.*

1. Hiri-ondasun higiezinaren eraikuntza-balioa ezartzeko ezarritako arauak, balioespen-erregela eta koefiziente zuzentzaileak kontuan hartuta finkatuko da eraikuntza konbentzionalen balioa; koefiziente horiek dagokion balio-txostenean ezartzen den eraikuntzaren oinarritzko balioari **(VBC)**

4. Cuando las características de una construcción no permitan su identificación con alguna de las tipologías indicadas en los apartados anteriores, se realizará una valoración singularizada, conforme al método valorativo que prevea la correspondiente ponencia de valores.

5. Cuando se produzca el cese definitivo en el funcionamiento de las instalaciones industriales que constituyan elementos esenciales para la funcionalidad del inmueble, ya sea por causas de regulación del mercado o de origen tecnológico, y siempre que no se hayan tenido en cuenta estas circunstancias en la ponencia de valores aplicable, se podrá aprobar una nueva ponencia de valores en la que se considere, por el método que en la propia ponencia se determine, la minoración de valor ocasionada por el cese en la operatividad de las instalaciones citadas.

Artículo 6. *Valoración de las construcciones de los inmuebles de características especiales.*

1. La valoración de las construcciones convencionales se realizará atendiendo a las normas, reglas de valoración y coeficientes correctores del valor de las construcciones establecidos para los inmuebles urbanos, aplicados al valor básico de construcción **(VBC)** que se establezca en la correspondiente



aplikatuko zaizkio, 3. artikuluan xedatzen denaren arabera. Ez dira aplikatzekoak izango hiri-ondasun higiezinaren balioa finkatzeko araudian aurreikusitako lurzoruen balioaren eta eraikuntzen balioaren koefiziente zuzentzaile bateratuak.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik salbuetsita daude zentral termikoetako eraikuntza konbentzionalak; kasu horretan, II. kapituluan ezarritakoarekin bat jotzeko da.

2. Eraikuntza berezien balioa kalkulatzeko, ordezen-balioa hartuko da oinarri; balio hori, beharrezko denean, balio-galera fisiko, funtzional edo ekonomikoaren arabera zuzenduko da, baita zaharkitze teknologikoaren arabera ere.

Ordezen-balioa gaur egungo kostua izango da, eta eragiketa honen emaitza izango da: zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak gehi higiezina funtzionamenduan jartzeko beharrezkoak diren gainerako gastuak. Balio hori kalkulatzeko, unitate lineal bakoitza (azalera, bolumena, pisua, potentzia, ekoizpena edo elementu unitario bakoitza) bider foru dekretu honetan kostu unitarioetarako ezarritako moduluak.

3. Goiko zenbakian aurreikusitakoaren

ponencia de valores, de acuerdo con lo que dispone el artículo 3. No serán de aplicación los coeficientes correctores conjuntos del valor del suelo y de las construcciones previsto para los bienes inmuebles urbanos en su normativa de valoración.

Se exceptúa de lo dispuesto en el párrafo anterior la valoración de las construcciones convencionales ubicadas en las centrales térmicas, que se realizará de acuerdo con lo que establece el capítulo II.

2. El valor de las construcciones singulares se determinará a partir del valor de reposición, que se corregirá, cuando proceda, en función de la depreciación física, funcional y económica, así como de su obsolescencia tecnológica.

Se entenderá por valor de reposición el coste actual, resultante de la suma de los costes directos e indirectos y de los demás gastos necesarios para la puesta en funcionamiento del inmueble. Dicho valor será el resultado de multiplicar cada una de las unidades lineales, de superficie, de volumen, de peso, de potencia, de producción o de cada elemento unitario, por los módulos de coste unitario establecidos en el presente Decreto Foral.

3. A efectos de lo previsto en el apartado



ondorioetarako, balioak finkatzeko metodologian bereziten dira, batetik, eraikuntza-kostuaren modulu bidez balioztatzen diren eraikuntza-unitateei aplikatu beharrekoa den prozedura eta, bestetik, potentziaren edo ekoizteko ahalmenaren arabera balioztatzen diren unitateei aplikatu beharrekoa; edonola ere, aplikatzekoak izango dira II. kapituluko koefiziente zuzentzaileak.

Metodo honen bidez balioztatzen den eraikuntza-unitate bakoitzeko eraikuntzaren kostu unitarioaren moduluak (**MCUC**) kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: higiezin talde bakoitzerako foru dekretu honen eranskinean ezartzen diren koefizienteak bider hiri-ondasun higiezinaren katastro-balioak finkatzeko araudi teknikoan definitutako eraikuntzaren oinarritzko balioa (**VBC**).

Metodo honen bidez balioztatzen den eraikuntza-unitate bakoitzeko potentziaren edo ekoizteko ahalmenaren arabeko balioa finkatzeko kostu unitarioaren moduluak (**MCUP**) kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: higiezin talde bakoitzerako foru dekretu honen eranskinean ezartzen diren koefizienteak bider dagokion ekoizpen-sektorerako potentzia edo ekoizteko ahalmena dela-eta ezarritako oinarritzko moduluaren zenbatekoa (**MBP**).

anterior, la metodología de valoración distingue entre el procedimiento aplicable a las unidades constructivas que se valoran mediante módulos de coste de construcción y el correspondiente a las que se valoran por potencia o capacidad de producción, sin perjuicio de la aplicación de los coeficientes correctores previstos en el capítulo II.

Los módulos de coste unitario de construcción (**MCUC**) para cada unidad constructiva que se valore por este método serán el resultado de multiplicar los coeficientes que, para cada grupo de inmuebles, se establecen en el Anexo de este Decreto Foral, por la cuantía determinada para el valor básico de construcción (**VBC**) definido en la normativa de valoración catastral de bienes inmuebles urbanos.

Los módulos de coste unitario para la valoración por potencia o capacidad de producción (**MCUP**) de cada unidad constructiva que se valore por este método serán el resultado de multiplicar los coeficientes que, para cada grupo de inmuebles, se establecen en el Anexo de este Decreto Foral por la cuantía determinada para el módulo básico por potencia o capacidad de producción (**MBP**) del sector productivo de que



se trate.

Bidesaria duten autobide, errepide eta tunelen eraikuntza berezien balioa finkatzeko, II. kapituluan xedatutakoa beteko da.

Para la valoración de las construcciones singulares de autopistas, carreteras y túneles de peaje se estará a lo dispuesto en el capítulo II.

4. Potenziaren edo ekoizteko ahalmenaren araberrako oinarritzko modulua (MBP), aurreko zenbakian aurreikusitakoa, beheko koadro honetan zehazten dena izango da ekoizpen-sektore bakoitzeko eraikuntza berezietarako:

4. El módulo básico por potencia o capacidad de producción (MBP) previsto en el apartado anterior será, para las construcciones singulares en cada sector productivo, el que figura en el siguiente cuadro:

Potenziaren edo ekoizteko ahalmenaren araberrako oinarritzko moduluen koadroa

Cuadro de módulos básicos por potencia o capacidad de producción

| Ekoizpen-sektorea /Sector productivo | MBP | Zenbatekoa/Cuantía |
|---|------|----------------------------------|
| Energia elektrikoa/ Energía eléctrica | MBPE | 400.015 € / MW |
| Gas eta birgasifikazioa/ Gas y regasificación | MBPG | 132.405 €/ (m ³ /h) |
| Petrolio finntzea/Refino de petroleo | MBPR | 695.557 € / elementu/elemento |

7. artikulua. Lurzoruaren eta eraikuntzen araberrako administrazio-emakidaren araberrako koefiziente zuzentzailea.

Artículo 7. Coeficiente corrector por concesión administrativa de los valores del suelo y de las construcciones.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezina osorik edo partez badago administrazio-emakidaren

En el supuesto de que el inmueble de características especiales se encuentre, en todo



araubidearen pean, 0,90eko koefizientea aplikatuko zaie emakidak eragindako lurzorua eta eraikuntzen balioei.

o en parte, sujeto al régimen de concesión administrativa, se aplicará el coeficiente 0,90 a los valores del suelo y de las construcciones de la parte afectada por la concesión.

8. artikulua. *Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro-balioa.*

Artículo 8. *Valor catastral de los bienes inmuebles de características especiales.*

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro-balioa kalkulatzeko, lurzorua eta eraikuntzen balioaren batura egingo da; balio horiek foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera kalkulatuko dira; edonola ere, aplikatzekoa izango da higiezin mota honi dagokion merkatuarekiko koefizientea.

El valor catastral de los bienes inmuebles de características especiales se obtendrá mediante la suma del valor del suelo y del valor de las construcciones determinados conforme a lo establecido en este Decreto Foral, sin perjuicio de la aplicación del coeficiente de referencia al mercado correspondiente a esta clase de inmuebles.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren udal mugarte batean baino gehiagotan badago, lurzorua eta eraikuntzen balioa banatu egingo da udal mugarte bakoitzean duen azaleraren portzentajea kontuan hartuta, eta zati bakoitzari bertan dauden eraikuntzen eta gainerako berezitasunen balioa esleituko zaio.

En el caso de que un mismo bien inmueble de características especiales se encuentre localizado en distintos términos municipales, el valor del suelo se repartirá por el porcentaje de su superficie que figure en cada término municipal asignando a cada parte el valor de las construcciones existentes y demás particularidades en cada una de ellas.

II. KAPITULUA

CAPÍTULO II

Ezaugarri bereziko ondasun higiezin talde bakoitzaren balioa finkatzeko arau espezifikoak

Normas específicas de valoración de cada grupo de bienes inmuebles de características especiales



1. ATALA. ENERGIA ELEKTRIKOA EKOIZTEKO DIREN EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN BALIOA FINKATZEKO ARAUAK

SECCIÓN 1ª. NORMAS DE VALORACIÓN DE LOS BIENES INMUEBLES DE CARACTERÍSTICAS ESPECIALES DESTINADOS A LA PRODUCCIÓN DE ENERGÍA ELÉCTRICA

9. artikulua. *Zentral termikoen balioa finkatzeko arauak.*

Artículo 9. *Normas para la valoración de las centrales térmicas.*

1. Zentral termikoetako eraikuntza konbentzionalen zein berezien balioa finkatzeko, potenziaren araberako kostu unitarioaren modulu bat (MCUP) aplikatuko zaio zentral bakoitzaren potentzia instalatuari, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Era horretan lortutako balioa zentral termikoaren eraikuntza guztien ordezen-balioa izango da katastro-ondorioetarako.

1. La valoración de las construcciones, tanto convencionales como singulares, integrantes de las centrales térmicas, se realizará mediante la aplicación, de acuerdo con el artículo 6, de un módulo de coste unitario por potencia (MCUP) a la instalada en cada central. El valor así obtenido se considerará, a los efectos catastrales, como el valor de reposición de todas las construcciones de la central térmica.

Energia elektrikoa ekoizten duten zentral termikoetako eraikuntzen ordezen-balioa haietan erabiltzen den teknologiaren arabera izango da, teknologia horrek baldintzatzen baitu zer erregai mota erabiltzen den eta zein den elektrizitatea ekoizteko potentzia. Horretarako, zentral mota hauek bereziten dira:

El valor de reposición de las construcciones que integran las centrales térmicas productoras de energía eléctrica dependerá de la tecnología que utilizan, que condiciona el tipo de combustible que consumen y la potencia de producción de electricidad. A tal efecto, se distinguen los siguientes tipos de centrales:

- a) Ikatz-zentral termikoak.
- b) Diesel-, fuel- eta fuel-gas-zentral termikoak.

- a) Centrales térmicas de carbón.
- b) Centrales térmicas de tipo diésel, fuel y fuel-gas.



c) Ziklo konbinatuko zentral termikoak.

c) Centrales térmicas de ciclo combinado.

2. Potentzia instalatuaren arabera kalkulatu da ekoizpen-unitate bakoitzerako batez besteko ordezipen-balioa. Emaiztan, higiezinaren eraikuntza konbentzionalen zein berezien kostua jasoko da; eraikuntza berezi horien artean, hauek daude: uhal garraiatzaileak, erregaiaren, uraren, lurrunaren edo beste likido zein gas batzuen hornidurarako hodiak, galdarak eta elementu osagarriak, tximiniak, hozteko dorreak eta ekipamenduak eta siloak, turbinak, turbinanabeak eta ekipamendu tekniko osagarriak, eusteko egitura metalikoak, urak arazteko eta tratatzeko instalazioak, ponpatzeko estazioak, parke eolikoa eta azpiestazioak, baltsak, ikatzen parkea eta elementu osagarriak.

2. El valor medio de reposición para cada unidad de producción se calculará en función de la potencia instalada. El resultado incluye el coste tanto de las construcciones convencionales del bien inmueble como el de las singulares, entre las que se encuentran elementos tales como las cintas transportadoras, las tuberías de suministro de combustible, agua, vapor u otros líquidos o gases, las calderas y elementos complementarios, las chimeneas, las torres y bombas de refrigeración y silos, las turbinas, naves de turbinas y equipos eléctricos complementarios, las estructuras metálicas de sustentación, las instalaciones de depuración y tratamiento de aguas, las estaciones de bombeo, el parque eléctrico y las subestaciones, las balsas, el parque de carbones y los elementos auxiliares.

10. artikulua. *Zentral termikoei aplikatu beharreko kostu unitarioaren moduluaren koefiziente zuzentzaileak.*

Artículo 10. *Coeficientes correctores del módulo de coste unitario aplicable a las centrales térmicas.*

Aurreko artikuluan aurreikusitakoaren ondorioz ateratzen den kostu unitarioaren modulua antzinatasunaren eta zaharkitze teknologikoaren arabera zuzenduko da, koefiziente hauek aplikaturik:

El módulo de coste unitario resultante de lo previsto en el artículo anterior se corregirá en función de la antigüedad y de la obsolescencia tecnológica mediante la aplicación de los siguientes coeficientes:



a) Zentral termikoaren antzinasunaren araberako balio-galeraren koefizientea. Antzinasuna adierazteko, urte osoen kopurua erabiliko da; horretarako, kontuan hartuko dira ekoizpen-unitatea zerbitzuan jarri denetik edo, instalazioen berritzea bada, birkonexioa egin denetik balio-txostena onetsi eta hurrengo urteko urtarrilaren 1era arte igarotako urteak, koadro honen arabera:

a) Coeficiente de depreciación en función de la antigüedad de la central térmica. El período de antigüedad se expresará en años completos, para lo que se tomarán los transcurridos desde la fecha de la puesta en servicio de la unidad de producción o desde la reconexión en caso de renovación de las instalaciones, hasta el 1 de enero del año siguiente al de la aprobación de la correspondiente ponencia de valores, de acuerdo con el siguiente cuadro:

Antzinasunaren araberako balio-galeraren koefizienteen koadroa

Cuadro de coeficientes de depreciación por antigüedad

| Urte osoak/Años completos | Koefiziente zuzentzailea/ Coeficiente corrector | Urte osoak/ Años completos | Koefiziente zuzentzailea/ Coeficiente corrector |
|---------------------------|---|----------------------------|---|
| 1 - 2 | 0,95 | 31 - 32 | 0,49 |
| 3 - 4 | 0,89 | 33 - 34 | 0,47 |
| 5 - 6 | 0,85 | 35 - 36 | 0,46 |
| 7 - 8 | 0,81 | 37 - 38 | 0,45 |
| 9 - 10 | 0,77 | 39 - 40 | 0,43 |
| 11 - 12 | 0,73 | 41 - 42 | 0,42 |
| 13 - 14 | 0,70 | 43 - 44 | 0,41 |
| 15 - 16 | 0,67 | 45 - 46 | 0,40 |
| 17 - 18 | 0,64 | 47 - 48 | 0,39 |
| 19 - 20 | 0,61 | 49 - 50 | 0,38 |
| 21 - 22 | 0,59 | 51 - 52 | 0,37 |
| 23 - 24 | 0,56 | 53 - 54 | 0,36 |
| 25 - 26 | 0,54 | 55 - 56 | 0,35 |
| 27 - 28 | 0,52 | 57 - 58 | 0,34 |
| 29 - 30 | 0,51 | 59 edo gehiago/omas | 0,33 |



b) Zaharkitze teknologikoaren arabera koefiziente zuzentzailea. Zentral termikoak erabilitako teknologiaren arabera eta teknologiaz aldatzen ez bada, balio hauek izango ditu koefizienteak:

b) Coeficiente corrector por obsolescencia tecnológica. En función de la tecnología utilizada por la central térmica y en tanto no sea sustituida por otra, el coeficiente tomará los siguientes valores:

| Zentral termiko mota/ Tipo de central térmica | Koefiziente zuzentzailea/ Coeficiente corrector |
|--|--|
| a) Ikatz zentralak/ Centrales de carbón | 0,50 |
| b) Diesel-, fuel- eta fuel-gas-zentralak/ Centrales de tipo diésel, fuel, fuel - gas | 0,75 |
| c) Ziklo konbinatuko zentralak/ Centrales de ciclo combinado | 1,00 |

11. artikulua. *Energia hidroelektrikoa ekoizteko zentralen balioa finkatzeko arauak.*

Artículo 11. *Normas para la valoración de centrales de producción de energía hidroeléctrica.*

Energia hidroelektrikoa ekoizteko zentralen balioa finkatzeko, kontuan hartuko dira kapitulu honen 4. atalean presa, ur-jauzi eta urtegietarako ezartzen diren irizpideak eta arauak.

Las centrales de producción de energía hidroeléctrica se valorarán de acuerdo con los criterios y normas que se establecen para las presas, saltos de agua y embalses en la sección 4ª de este capítulo.

12. artikulua. *Parke eolikoaren balioa finkatzeko arauak.*

Artículo 12. *Normas para la valoración de parques eólicos.*

Parke eolikoaren eraikuntza guztien balioa finkatzeko (eraikinak, instalazioak eta urbanizatu zein hobetzeko obrak sartzen dira

El valor de todas las construcciones de los parques eólicos, entendiéndose por tales los edificios, instalaciones y obras de urbanización



eraikuntza horien barruan), ordezen-balioa izango da oinarri, eta balio-galera fisiko, funtzional eta ekonomikoaren arabera zuzenduko da.

Ordezen-balioa gaur egungo kostua izango da, eta eragiketa honen emaitza izango da: zuzeneneko eta zeharkako kostu guztiak gehi higiezina funtzionamenduan jartzeko beharrezkoak diren gainerako gastuak.

Balio hori kalkulatzeko, potentziaren araberako kostu unitarioaren modulu bat (MCUP) aplikatuko zaio parke eolikoaren potentzia instalatuari. Era horretan lortutako balioa parke eolikoaren eraikuntza guztien ordezen-balioa izango da katastro-ondorioetarako.

13. artikulua. *Zentral eolikoei aplikatu beharreko kostu unitarioaren moduluen koefiziente zuzentzaileak.*

Ateratzen den kostu unitarioaren modulu zuzenduko bada, parke eolikoaren antzintasunaren araberako koefiziente bat aplikatuko da, denbora dela-eta instalazioetan gertatutako balio-galera fisikoa haztatzeko.

Antzintasuna adierazteko, urte osoen kopurua erabiliko da; horretarako, kontuan hartuko dira ekoizpen-unitateak zerbitzuan jarri direnetik

y mejora, se determinará a partir del valor de reposición, corregido en función de la depreciación física, funcional y económica.

Se entenderá por valor de reposición, el coste actual resultante de la suma de los costes directos e indirectos y de los demás gastos necesarios para la puesta en funcionamiento del inmueble.

Dicho valor será el resultado de aplicar un módulo de coste unitario por potencia (MCUP), a la instalada en el parque eólico. El valor así obtenido se considerará, a los efectos catastrales como el valor de reposición de todas las construcciones de dicho parque.

Artículo 13. *Coefficientes correctores del módulo de coste unitario aplicable a los parques eólicos.*

El módulo de coste unitario resultante se corregirá mediante la aplicación de un coeficiente en función de la antigüedad del parque eólico con el fin de ponderar la pérdida de eficacia de las instalaciones por la depreciación física producida por el transcurso del tiempo.

El período de antigüedad se expresará en años completos, para lo que se tomarán los transcurridos desde la fecha de la puesta en



edo, instalazioen berritzea bada, birkonexioa egin denetik balio-txostena onetsi eta hurrengo urteko urtarrilaren 1era arte igarotako urteak, beheko koadro honen arabera:

servicio de las unidades de producción, o desde su reconexión en caso de renovación de las instalaciones, hasta el 1 de enero del año siguiente al de la aprobación de la correspondiente ponencia de valores, según el cuadro indicado a continuación:

Antzintasunaren araberako balio-galeraren koefizienteen koadroa

Cuadro de coeficientes de depreciación por antigüedad

| Urte osoak/años completos | Koefiziente/Coeficiente |
|----------------------------|-------------------------|
| 9 urtera arte/Hasta 9 años | 1,00 |
| 10 edo gehiago/10 o mas | 0,80 |

2. ATALA. GASA EKOIZTEKO ETA BIRGASIFIKATZEKO DIREN EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN BALIOA FINKATZEKO ARAUAK

SECCIÓN 2ª. NORMAS DE VALORACIÓN DE LOS BIENES INMUEBLES DE CARACTERÍSTICAS ESPECIALES DESTINADOS A LA PRODUCCIÓN DE GAS Y REGASIFICACIÓN

14. artikulua. *Gasa ekoizteko diren ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren balioa finkatzeko arauak.*

Artículo 14. *Normas para la valoración de bienes inmuebles de características especiales destinados a la producción de gas.*

1. Gasa ekoizteko eta birgasifikatzeko zentraletako eraikuntza berezien balioa finkatzeko, 6. artikuluan ezarritakoarekin bat eraikuntzaren kostu unitarioaren modulu bat (MCUC) aplikatuko da eraikuntza-bolumen edo elementu bakoitzeko, edo potentziaren edo ekoizteko ahalmenaren kostu unitarioaren

1. La valoración de las construcciones singulares integrantes de las centrales de producción de gas y regasificación se realizará mediante la aplicación, de acuerdo con el artículo 6, de un módulo de coste unitario de construcción (MCUC) por volumen o elemento constructivo, o de un módulo de coste unitario



modulu bat (MCUP) aplikatuko zaio ekoizpen-bolumenari, kontuan hartuta denbora-unitatea. Kasuan-kasuan, dagokion aukera erabiliko da.

por potencia o capacidad de producción (MCUP) sobre el volumen de producción por unidad de tiempo, según corresponda.

2. Moduluen araberako balioa finkatzeko, higiezin hauek izango dira eraikuntza bereziak:

2. A efectos de su valoración por módulos se considerarán en estos inmuebles las siguientes construcciones singulares:

a) Gas natural likidotua biltzeko tangak, obra zibila eta deskarga egiteko zein lurruneztagailuekin konektatzeko instalazioak barne, bai eta zuziarekin lotutako segurtasunerakoak ere.

a) Los tanques de almacenamiento de gas natural licuado, en los que se incluye la obra civil y las instalaciones de descarga y de conexión con los vaporizadores, así como las de seguridad relacionada con la antorcha.

b) Birgasifikatzeko instalazioak, hauek barne: lurruneztagailuak eta lurruneztagailuaren sarreratik garraio-sarearekin konektatzeko balbuletarainoko instalazio guztiak.

b) Las instalaciones de regasificación, en las que se incluyen los vaporizadores y todas las instalaciones necesarias entre la entrada en el vaporizador y las válvulas de conexión con la red de transporte.

c) Zisternak kargatzeko habeak.

c) Los cargaderos de cisternas.

d) Portuko eta lehorreko obra zibila; obra hori foru dekretu honetan merkataritzako portuetarako berariaz ezarritakoaren arabera balioztatuko da.

d) La obra civil portuaria y terrestre, que se valorará según lo establecido al efecto en este Decreto Foral para los puertos comerciales.

15. artikulua. Gasa ekoizteko diren ezaugarri bereziko ondasun higieziinei aplikatzekoa den kostu unitarioaren moduluaren koefiziente zuzentzailea.

Artículo 15. Coeficiente corrector del módulo de coste unitario aplicable a los inmuebles de características especiales destinados a la producción de gas.

Eraikuntza berezien tipologiaren koadroan honelako higiezinarako jasotako

Los módulos de coste unitario obtenidos por aplicación de los coeficientes que contiene el



koefizienteak aplikatzen diren kostu unitarioen moduluak balio-galeraren koefiziente baten bidez zuzenduko dira, antzinasunaren arabera. Antzinasuna adierazteko, urte osoen kopurua erabiliko da; horretarako, kontuan hartuko dira eraikuntza bakoitza funtzionamenduan jarri denetik balio-txostena onetsi eta hurrengo urteko urtarrilaren 1era arte igarotako urteak, koadro honen arabera:

cuadro de tipologías de las construcciones singulares para estos inmuebles serán corregidos mediante un coeficiente de depreciación en función de la antigüedad. El período de antigüedad se expresará en años completos, para lo que se tomarán los transcurridos desde la puesta en funcionamiento de cada construcción hasta el 1 de enero del año siguiente al de la aprobación de la correspondiente ponencia de valores, de acuerdo con el siguiente cuadro:

Antzinasunaren arabeko balio-galeraren koefizienteen koadroa

Cuadro de coeficientes de depreciación por antigüedad

| Urte osoak/años completos | Koefiziente zuzentzailea Coeficiente corrector |
|----------------------------|---|
| 1 - 4 | 0,99 |
| 5 - 10 | 0,95 |
| 11 - 15 | 0,89 |
| 16 - 20 | 0,80 |
| 21 - 25 | 0,69 |
| 26 - 30 | 0,56 |
| 30 baino gehiago/Mas de 30 | 0,50 |

3. ATALA. PETROLIOA FINTZEKO DIREN EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN BALIOA FINKATZEKO ARAUAK

SECCIÓN 3ª. NORMAS DE VALORACIÓN DE LOS BIENES INMUEBLES DE CARACTERÍSTICAS ESPECIALES DESTINADOS AL REFINO DE PETRÓLEO

16. artikulua. *Petrolioaren fintzeko diren ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren balioa finkatzeko arauak.*

Artículo 16. *Normas para la valoración de bienes inmuebles de características especiales destinados al refinado de petróleo.*



1. Petrolioa fintzeko instalazioetako eraikuntza berezien balioa finkatzeko, 6. artikuluan ezarritakoarekin bat eraikuntzaren kostu unitarioaren modulu bat **(MCUC)** aplikatuko da eraikuntza-elementuen bolumen edo azalera bakoitzeko, edo potentziaren edo ekoizteko ahalmenaren kostu unitarioaren modulu bat **(MCUP)** aplikatuko zaio ekoizpen-elementuari edo potentziari. Kasuan-kasuan, dagokion aukera erabiliko da.

2. Moduluen araberako balioa finkatzeko, higiezin hauek izango dira eraikuntza bereziak:

- a) Ekoizpen-unitate edo -elementuak.
- b) Tangak.
- c) Urbanizazioa eta azpiegitura espezifikoak.
- d) Zerbitzu osagarriak.

3. Ekoizpen-unitate edo -elementua da jarduera jakin oso bat osatzen duten prozesu fisiko-kimikoak hartzen dituzten instalazioen multzoa.

Instalazioen eginkizun nagusia gehien edo ondoen adierazten duen prozesuaren arabera, ekoizpen-elementu hauek daude:

- a) Petrolio gordinaren destilazioa.
- b) Hutsean eginiko destilazioa.

1. La valoración de las construcciones singulares integrantes de las refinerías de petróleo se realizará mediante la aplicación, de acuerdo con el artículo 6, de un módulo de coste unitario de construcción **(MCUC)** por superficie o volumen sobre los distintos elementos constructivos, o de un módulo de coste unitario por potencia o capacidad de producción **(MCUP)** sobre el elemento de producción o potencia, según corresponda.

2. A efectos de su valoración por módulos se considerarán en estos inmuebles las siguientes construcciones singulares:

- a) Unidades o elementos de producción.
- b) Tanques.
- c) Urbanización e infraestructura específica.
- d) Servicios auxiliares.

3. Se entiende por unidad o elemento de producción, el conjunto de las instalaciones en las que tienen lugar uno o varios procesos físico-químicos que constituyen una operación completa determinada.

En función del proceso que resulta más característico o representativo de su función principal, se diferencian los siguientes elementos de producción:

- a) Destilación de crudo.
- b) Destilación al vacío.



- | | |
|---|--|
| c) Cracking katalitiko (Fluid Catalytic Cracking). | c) Craqueo catalítico (Fluid Catalytic Cracking). |
| d) Hidrocracking-a. | d) Hidrocrqueo. |
| e) Biskositearen erreduzitzailea (Visbreaking). | e) Reductora de viscosidad (Visbreaking). |
| f) Kokizazioa. | f) Coquización. |
| g) Kokeren kiskaltzea. | g) Calcinación de coke. |
| h) Erreformatu katalitiko (plataformatua edo Unifining Platforming). | h) Reformado catalítico (Plataformado o Unifining Platforming). |
| i) Isomerizazioa (isomax, isopentenoak, isobutanoak. | i) Isomerización (isomax, isopentenos, isobutanos). |
| j) Hidrotratamendua, hidrosulfurazioa, hidrosnitrogenazioa. | j) Hidrotratamiento, hidrosulfuración, hidrosnitrogenación. |
| k) Eterren ekoizpena (metil-ter-butyl-etera, etil-terbutyl-etera). | k) Producción de éteres (metil-ter-butyl-éter, etil-terbutyl-éter). |
| l) Merox edo gozatzea. | l) Merox o endulzamiento. |
| m) Aminak edo gas-garbiketak. | m) Aminas o lavado de gases. |
| n) Sufrea (berreskuratzea). | n) Azufre (recuperación). |
| o) Gasak berreskuratzea, banatzea (petrolio-gas likidotua, propano-butano). | o) Recuperación, separación de gases (gas licuado del petróleo, propano-butano). |
| p) Hidrogenoa berreskuratzea. | p) Recuperación de hidrógeno. |
| q) Hidrogenoa. | q) Hidrógeno. |

Era berean, ekoizpen-elementuak dira asfalto-lantegiak eta base lubrifikatzaileak ekoiztekoak, oinarriko edo lehen mailako petrokimika-unitateak, eta olefinak (etilenoa, propilenoa, butadienoa) eta aromatikoa (bentzeno, toluenoa eta xilenoa) ekoizteko unitateak.

También se incluyen como elementos de producción las plantas de asfaltos y las de bases lubricantes, así como las unidades de petroquímica básica o primaria, de olefinas (etileno, propileno, butadieno) y aromáticos (benceno, tolueno y xileno).



4. Tanga edo gordailua izango da barruko presio manometriko jakin bat jasateko gai den ontzi oro, petrolio gordina eta gainerako prozesuen ondoriozko produktuak biltzeko dena.

4. Se entenderá como tanque o depósito todo recipiente diseñado para soportar una presión interna manométrica determinada, en el que se almacene el crudo y los productos resultantes de los distintos procesos.

5. Urbanizazioa edo azpiegitura espezifiko da petrolio gordina edo produktuak biltzeko ontziak hartzen dituen instalazioaren azalera.

5. Se considerará urbanización o infraestructura específica la superficie que ocupe la instalación de los depósitos de almacenamiento de crudo o productos.

6. Zerbitzu osagarrietan, kogenerazio-lantegia eta hondakin-uren arazketarako lantegia sartzen dira.

6. Los servicios auxiliares incluyen la planta de cogeneración y la de tratamiento de aguas residuales.

17. artikulua. *Petrolioaren finantzeko diren ezaugarri bereziko ondasun higiezinari aplikatzeko den kostu unitarioaren moduluaren koefiziente zuzentzailea.*

Artículo 17. *Coefficiente corrector del módulo de coste unitario aplicable a los inmuebles de características especiales destinados al refinado de petróleo.*

Eraikuntza berezien tipologiaren koadroan honelako higiezinarentako jasotako koefizienteak aplikatzen diren kostu unitarioaren moduluak balio-galeraren koefiziente baten bidez zuzenduko dira, antzintasunaren arabera. Antzintasuna adierazteko, urte osoen kopurua erabiliko da; horretarako, kontuan hartuko dira eraikuntza bakoitza funtzionamenduan jarri denetik balio-

Los módulos de coste unitario obtenidos por aplicación de los coeficientes que contiene el cuadro de tipologías de las construcciones singulares para estos inmuebles serán corregidos mediante un coeficiente de depreciación en función de la antigüedad. El período de antigüedad se expresará en años completos, para lo que se tomarán los transcurridos desde la puesta en



txostena onetsi eta hurrengo urteko urtarrilaren 1era arte igarotako urteak, koadro honen arabera:

funcionamiento de cada construcción hasta el 1 de enero del año siguiente al de la aprobación de la correspondiente ponencia de valores, de acuerdo con el siguiente cuadro:

Antzintasunaren arabeko balio-galeraren koefizienteen koadroa

Cuadro de coeficientes de depreciación por antigüedad

| Urte osoak/años completos | Koefiziente zuzentzailea Coeficiente corrector |
|----------------------------|---|
| 1 - 4 | 0,99 |
| 5 - 10 | 0,95 |
| 11 - 15 | 0,89 |
| 16 - 20 | 0,80 |
| 21 - 25 | 0,69 |
| 26 - 30 | 0,56 |
| 30 baino gehiago/Mas de 30 | 0,50 |

4. ATALA. PRESAK, UR-JAUZIAK ETA URTEGIAK DIREN EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN BALIOA FINKATZEKO ARAUAK

SECCIÓN 4ª. NORMAS DE VALORACIÓN DE LOS BIENES INMUEBLES DE CARACTERÍSTICAS ESPECIALES PRESAS, SALTOS DE AGUA Y EMBALSES

18. artikulua. *Presa, ur-jauzi eta urtegien balioa finkatzeko arauak.*

Artículo 18. *Normas para la valoración de presas, saltos de agua y embalses.*

1. Presa, ur-jauzi eta urtegien balioa finkatzeko, hau hartu beharko da kontuan:

1. Para la valoración del suelo de las presas, saltos de agua y embalses se tendrá en cuenta lo siguiente:

a) Hau izango da urtegi baten ohearen edo hondoaren muga: urtegia elikatzen duten ibaien

a) La delimitación del lecho o fondo del embalse se corresponderá con el límite de terreno



ohiko ur-goraldien ondorioz urak maila handienera iristen direnean ur horiek estalitako lurraren muga.

b) Presa eta ur-jauzien kasuan, elementu hauek okupatutako lur-eremua mugatuko da dagokion balio-txostenean: presak, energia hidroelektrikoa ekoizteko zentralak, ur-jauziak eta ekoizpen-prozesuari lotutako gainerako eraikuntzak, eta energia hidroelektrikoa lortu edo ekoizteko beharrezkoak diren kanalak, garraio-hodiak edo beste hodi mota batzuk, kanal eta hodi horiek lur-eremu horretatik kanpo badaude ere. Eraikuntzaren parametro perimetraletik kanpoko lerroan dagoen lurzorua ere sartuko da, bai eta legez ezarritako zortasun-eremuak, babes-eremuak eta segurtasun-eremuak zein jarduera nagusiari lotutako beste edozein eremu ere.

Ez dira kontuan hartuko urtegiaren ohearen zortasun-eremuak, babes-eremuak edo segurtasun-eremuak, baina bai eraikuntzek hartutako lurzorua —dikeak edo urtegiak, gainezkabideak eta presaren gainerako elementuek hartutakoa barne— eta zentral hidroelektrikoa errepide-sare orokorrarekin lotzeko bideak eta errepide horietatik zentralaren funtsezko gunetara iristeko bideak, betiere erabilera publikokoak ez badira.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinetik aparte

cubierto por las aguas cuando alcanzan su mayor nivel como consecuencia de las máximas crecidas ordinarias de los ríos que lo alimentan.

b) Para las presas y saltos de agua se delimitará en la correspondiente ponencia de valores el recinto ocupado por las presas, las centrales de producción de energía hidroeléctrica, saltos de agua y demás construcciones vinculadas al proceso de producción, así como por los canales, tuberías de transporte u otras conducciones que sean necesarias para el desarrollo de la actividad de obtención o producción de energía hidroeléctrica aun estando ubicadas éstas fuera de dicho recinto. Se incluirá el suelo comprendido dentro la línea exterior de los paramentos perimetrales de las construcciones, así como el de las zonas de servidumbre, protección y seguridad legalmente establecida y cualquier otro que esté afecto a la actividad principal.

No se considerarán las zonas de servidumbre, protección y seguridad del lecho del embalse pero sí el suelo ocupado por las construcciones, incluido el que ocupe el dique-presa, el aliviadero y demás elementos de la presa, y las vías de enlace de la central hidroeléctrica con la red general de carreteras, así como los accesos desde éstas a todos los puntos esenciales de la central, siempre que no estén abiertas al uso público.

Las depuradoras de presas de abastecimiento



jasoko da ur-hornidurarako presen araztegien katastroa.

se catastrarán separadamente del bien inmueble de características especiales.

Urtegia aisialdi-erabileretarako bada, kirol-eremuak eta jolas-jardueretarako aldeak jasoko dira. Katastroan, ezaugarri bereziko ondasun higiezinetik aparte jasoko dira biztanleguneak, ez baitaude behin betiko lotuta konplexuaren funtzionamenduari.

Cuando el embalse esté destinado a usos recreativos se incluirán las zonas deportivas y áreas de recreo. Los poblados residenciales se incorporarán al Catastro separadamente del bien inmueble de características especiales, por no estar ligados de forma definitiva al funcionamiento del complejo.

2. Presa, ur-jauzi eta urtegietan dauden eraikuntza berezien balioa finkatzeko, 6. artikularekin bat, kasuan-kasuan luzeraren, azaleraren, bolumenaren edo pisuaren araberako kostu unitarioaren modulu bat aplikatuko zaie eraikuntza-elementuei edo aintzat hartutako aurrekontuko partidei.

2. La valoración de las construcciones singulares integrantes de presas, saltos de agua y embalses se realizará mediante la aplicación, de acuerdo con el artículo 6, de un módulo de coste unitario por longitud, superficie, volumen o peso, según corresponda, a los distintos elementos constructivos o partidas presupuestarias consideradas.

3. Eraikuntzaren teknologiaren arabera, presak mota hauetan sailkatzen dira:

3. Atendiendo a su tecnología constructiva, las presas se clasifican en los siguientes tipos:

a) Ganga-presak.

a) Presas de bóveda.

b) Grabitate-presak, hormigoizkoak edo harlangaitzezkoak izan daitezkeenak.

b) Presas de gravedad, que podrán ser de hormigón o de mampostería.

c) Material soltez eginiko presak.

c) Presas de materiales sueltos.

4. Moduluen araberako balioa finkatzeko, higiezin hauek izango dira eraikuntza bereziak:

4. A efectos de su valoración por módulos, se considerarán en estos inmuebles las siguientes



- a) Presa.
- b) Betonita-zementuzko pantaila iragazgaizgarria.
- c) Zentral hidroelektrikoa.
- d) Beste instalazio batzuk.

5. Sarbideak eta urbanizatzeko lanak, beste instalazio batzuen barruan sartzen diren bideak izan ezik, eta obraren azterlanak, proiektuak, zuzendaritza eta kontrola sartuta daude eraikuntza berezi bakoitzaren kostuaren moduluetan.

19. artikulua. *Presa, ur-jauzi eta urtegien balioa finkatzeko kontuan hartu behar diren eraikuntza-elementuak.*

1. Balioa finkatzean, presaren eraikuntza-elementu hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Presaren bolumena. Ganga-presetan, kontuan hartuko da hormigoi armatuaren bolumena; grabitate-presetan, masa-hormigoiaren edo harlangaitzaren bolumena, eta material soltez eginiko presetan, harri-lubetaren edo lurraren bolumena.

Tipologiaren koadroko koefizienteak aplikatuta ateratzen den kostu unitarioaren moduluan, zimenduen indusketari dagokiona sartzen da.

construcciones singulares:

- a) La presa.
- b) La pantalla impermeabilizante de bentonita-cemento.
- c) La central hidroeléctrica.
- d) Otras instalaciones.

5. Los accesos y obras de urbanización, excluidas las vías que deban integrarse como otras instalaciones, así como los estudios y proyectos y la dirección y control de obra se encuentran incluidas en los módulos de coste de cada construcción singular.

Artículo 19. *Elementos constructivos que deben considerarse a efectos de la valoración de las presas, saltos de agua y embalses.*

1. A efectos de su valoración, se considerarán los siguientes elementos constructivos de la presa:

- a) Volumen de la presa. En las presas de bóveda se tendrá en cuenta el volumen de hormigón armado; en las presas de gravedad, el volumen de hormigón en masa o mampostería; y en las presas de materiales sueltos, el volumen de escollera o tierra.

En el módulo de coste unitario obtenido por la aplicación de los coeficientes del cuadro de tipologías se incluye el correspondiente a la



Koefiziente horiek presaren bolumenari aplikatuko zaizkio, ganberak eta galeriak deskontatu gabe. Presa mistoa bada, zati bakoitzaren balioa dagokion moduluen arabera finkatuko da.

Material soltez eginiko presetan, erabat eginda badaude ibaitik bertatik ateratako agregakinez, eranskinean berriaz aurreikusitako koefizientea aplikatuko da; horretarako, titularrak modu fede-emailean egiaztatu behar du era horretarako presak dela.

Hormigoizko presetan 500.000 m³-tik gorako fase bakar batean eginiko presaren edo presen bolumenari eta material soltez eginikoetan 1.000.000 m³-tik gorako fase bakar batean eginiko presaren edo presen bolumenari koefiziente bat aplikatuko zaie material-bolumenaren soberakina dela-eta: lehenengoetan, 0,80; bigarrenetan, berriz, 0,95. Koefiziente hau ez da aplikatuko goiko paragrafoan adierazitako kasuan.

b) Gainegitura. Presaren gainean edo haren zati baten gainean badago zutabe edo arku bat haren gailurrari eusten diona, azaleraren arabera finkatuko da balioa; horretarako, azalera izango da taularen zabaleraren mediana estatistikoaren eta eragindako luzeraren arteko biderkadura.

c) Balbula-ganberak eta uhateak eta

excavación de los cimientos. Dichos coeficientes se aplicarán al volumen de la presa sin descontar las cámaras y las galerías. Cuando la presa sea mixta, cada parte se valorará con el módulo que le corresponda.

En el caso de presas de materiales sueltos realizadas con áridos obtenidos totalmente del propio río será de aplicación el coeficiente previsto al efecto en el cuadro del Anexo, cuando el titular demuestre fehacientemente dicha circunstancia.

A la parte del volumen de la presa o presas realizada en una sola fase que exceda de 500.000 m³, en las presas de hormigón, y de 1.000.000 de m³, en las de materiales sueltos, se le aplicará un coeficiente por exceso de volumen de material que tendrá un valor de 0,80 en las primeras y 0,95 en las segundas. Este coeficiente no será de aplicación en el caso indicado en el párrafo anterior.

b) Superestructura. Cuando sobre la presa o parte de ella exista otra estructura de pilas o arcos que soporte su coronación, se valorará por superficie, que se calculará como el producto de la mediana estadística de la anchura del tablero por la longitud afectada.

c) Cámaras de válvulas y compuertas y galerías



auskultazio- zein ikuskapen-galeriak. Tipologien koadroan aurreikusitako koefizientea bakar-bakarrik aplikatuko zaie ganga-presei eta grabitate-presei eta presaren bolumen osoari.

d) Iragazgaizpena. Presako uretan gora edo material soltez eginda dauden presaren inguruetan parametroaren iragazgaizpen-azalera kalkulatzeko, formula hau erabiliko da:

$$S = l \times h / \text{sen } 30^\circ = l \times 2h$$

Formulan, "l" eta "h", hurrenez hurren, presaren gailurraren luzera eta presaren altuera dira; altuera hori zimentatze-azalera orokorraren alde beheenetik gailurreraino neurtuko da.

e) Gainezkabidearen itxitura. Uhate bidezko erregulazioa egiten bada, kontuan hartuko da gehieneko uraldirako isurtze-ahalmena. Uhate bidezko erregulazio partziala egiten bada eta parte bakoitzeko ahalmena ez bada ezagutzen, erregulazio osoa uhate bidez egingo balitz bezala jokatu da.

2. Azaleraren arabera balioztatuko dira estankotasuna bermatzeko presan, zimenduetan, lurrean edo goiko biltegian kokatutako pantaila iragazgaizgarriak, betonina-zementuzkoak izan, betoninazkoak izan edo zementuzkoak izan.

de auscultación e inspección. El coeficiente previsto en el cuadro de tipologías sólo se aplicará en las presas de bóveda y gravedad y al volumen total de la presa.

d) Impermeabilización. La superficie de impermeabilización del paramento de aguas arriba de la presa o zonas de presa de materiales sueltos se obtendrá mediante la aplicación de la siguiente fórmula:

$$S = l \times h / \text{sen } 30^\circ = l \times 2h$$

Siendo "l" y "h", respectivamente, la longitud de coronación y la altura de la presa, medida desde la parte más baja de la superficie general de cimentación hasta la coronación.

e) Cierre del aliviadero. En el caso de regulación por compuertas se valorará en función de la capacidad de vertido para la máxima avenida. Si se tratara de regulación parcial por compuertas y no se conociera la capacidad de cada parte, se valorará como si fuese regulado por compuertas en su totalidad.

2. Se valorarán por superficie las pantallas impermeabilizantes, ya sean de bentonita-cemento, de bentonita o de cemento, colocadas en la presa, sus cimientos, en el terreno o en el depósito superior para garantizar su estanqueidad.



3. Turbinak, alternadoreak, sorgailuak eta erregulazio-elementuak zein agindu-elementuak hartzen dituzten makina-etxeek edo instalazioek osatzen dute zentral hidroelektrikoa. Zentralari erantsitako bulegoak eta biltegiak ere sartuko dira, salbu eta zentraletik aparte badaude; kasu horretan, eraikuntza konbentzionaltzat hartuko dira.

3. La central hidroeléctrica estará integrada por las casas de máquinas o instalaciones que alberguen las turbinas, alternadores, generadores y elementos de regulación y de comando. También se incluirán las oficinas y almacenes anejos a la misma, salvo que estén separados de la central, en cuyo caso se valorarán como construcciones convencionales.

Balioa finkatzeko, koefiziente bereziak ezartzen dira lurpeko zentraletarako, sestra gaineko zentraletarako eta fase bakar batean eraiki diren zentralen 4.000 m²-tik gorako azalera-soberakinerako.

A efectos de su valoración se establecen coeficientes diferenciados en el cuadro del Anexo para las centrales subterráneas, para las centrales sobre rasante y para el exceso de superficie sobre 4.000 m² de las centrales que se hayan construido en una sola fase.

Presaren gorputzaren barruan erabat sartuta dauden zentralak ez dira bereiz balioztatuko.

No se valorarán separadamente las centrales incluidas totalmente dentro del volumen del cuerpo de la presa.

4. Eraikuntza-elementu hauek kontuan hartuko dira beste instalazio gisa:

4. Como otras instalaciones se incluyen en la valoración los siguientes elementos constructivos:

a) Lurpeko galeriak, tunelak, eroanbideak, hodiak eta kanalizazioak, presaren gorputzaren barrukoak izan ezik; azken horiek ganbera eta galeriatzat hartuko dira.

a) Galerías, túneles, conducciones, tuberías o canalizaciones enterradas, a excepción de las interiores al cuerpo de la presa, que se consideran incluidas en el concepto de cámaras y galerías.

b) Erdi lurpean edo aire zabalean dauden eroanbideak edo kanalizazioak.

b) Conducciones o canalizaciones semienterradas o a cielo abierto.

c) Karga-ganbera eta transformazio-parkearen obra zibila.

c) Cámara de carga y obra civil del parque de transformación.



d) Akueduktuaren kanal autoeramailea.

e) Akueduktuaren kanal autoeramaileari eusteko egitura.

f) Sifoiak.

g) Beheko eta goiko oreka-tximiniak eta ur-harguneak, presaren barrualdeko hormari atxikita daudenak.

h) Altzairuzko hodi behartua.

i) Tuneleko altzairuzko hodi behartua.

j) Sarbideak.

k) Tuneleko sarbideak.

Eraikuntza-elementu bat ez badator bat goikoekin, antzekoena den eraikuntza-elementuaren koefizientea aplikatuko da.

Zentral hidroelektrikoa edo beste industria-instalazio bat errepide-sare orokorrarekin lotzeko bideak eta errepideetatik zentralaren edo instalazioaren funtsezko guneetara eta ur-jauziaren edo instalazioaren gainerako elementuetara (eroanbideak eta presa) iristeko bideak, salbu eta erabilera publikokoak direnak, tarte asfaltatuak edo erroadura-tarteak hartzen duen azaleraren arabera balioztatuko dira, bazterbideak, arekak eta espaloiak kontuan hartuta.

5. Aurreko zenbakian azaldutako elementuak neurtzeko, erregela hauek hartuko dira kontuan:

d) Canal auto portante de acueducto.

e) Estructura de sustentación de canal auto portante de acueducto.

f) Sifones.

g) Chimeneas de equilibrio inferior y superior y tomas de agua que estén adosadas a la pared interior de la presa.

h) Tubería forzada de acero.

i) Tubería forzada de acero en túnel.

j) Vías de acceso.

k) Vías de acceso en túnel.

Cuando un elemento constructivo no coincida con alguno de los anteriores, se le aplicará el coeficiente del elemento constructivo que más se le asemeje.

Las vías de enlace de la central hidroeléctrica u otra instalación industrial con la red general de carreteras, así como los accesos desde aquéllas a todos los puntos esenciales de la central o instalación y demás elementos del salto o instalación, como conducciones y presa, excepto las que no estén cerradas y se mantengan abiertas al uso público, se valorarán por la superficie que ocupe el tramo asfaltado o de rodadura con arcenes, cunetas y aceras.

5. Para la medición de los elementos descritos en el apartado anterior se tendrán en cuenta las siguientes reglas:



a) Tartearen kanpoaldeko diametroen mediana estatistikoa izango da eroanbideen edo tximinien diametroa. Eroanbideen diametroetan, zati hamartarra bost edo handik gorakoa bada, goragoko unitatera biribilduko da; handik beherakoa bada, berriz, beheragoko unitatera. Tximinien diametroak badira eranskinaren dagokion koadroko bi diametro korrelatiboren batez bestekoaren parekoak edo gorakoak, goragoko diametroa biribilduko dira; beherakoak badira, berriz, beheragoko diametroa.

Sekzio zirkularra ez duten tunel, eroanbide edo tximinien kasuan, sekzio zirkular baliokidearen azalerari dagokion diametroa hartuko da kontuan.

b) Akueduktuaren kanal autoeramaileari eusteko egituraren azalera kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: kanalaren zabalera handienaren mediana estatistikoa bider haren luzera.

c) Altzairuzko hodien pisua kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da barruko perimetroa bider lodiera, luzera eta altzairuaren dentsitatea (7.850 Kg/ m^3).

20. artikulua. *Presas, ur-jauzi eta urtegiei aplikatu beharreko kostu unitarioaren moduluaren koefiziente zuzentzaileak.*

a) El diámetro de las conducciones o chimeneas será la mediana estadística de los diámetros exteriores del tramo. En los diámetros de las conducciones, la parte decimal igual o superior a cinco se redondeará a la unidad de diámetro superior y la menor a la de diámetro inferior. Los diámetros de las chimeneas iguales o superiores a la media aritmética de dos correlativos del cuadro correspondiente del Anexo se redondearán al diámetro superior y los menores al diámetro inferior.

Para túneles, conducciones o chimeneas distintas a la sección circular se tomará como diámetro el correspondiente al área de la sección circular equivalente.

b) La superficie de la estructura de sustentación de canal auto portante de acueducto se calculará como el producto de la mediana estadística de la mayor anchura del canal por su longitud.

c) El peso de las tuberías de acero se determinará como el producto de su perímetro interior por el espesor, la longitud y la densidad del acero, que se fija en 7.850 Kg/ m^3 .

Artículo 20. *Coefficiente corrector del módulo de coste unitario aplicable a las presas, saltos de agua y embalses.*



Eranskineko eraikuntza berezien tipologien koadroan jasotako koefizienteak aplikatuzetik lortzen diren kostu unitarioen moduluak balio-galeraren koefiziente baten bidez zuzenduko dira, antzinatasunaren arabera, honela:

Los módulos de coste unitario obtenidos por aplicación de los coeficientes del cuadro de tipologías de las construcciones singulares del Anexo serán corregidos mediante un coeficiente de depreciación en función de la antigüedad, de conformidad con lo siguiente:

a) Presa, pantaila eta beste instalazioen kasuan, antzinatasunaren koefizienteak kontuan hartuko ditu presa eraiki denetik, azken aldiz berritu edo handitu denetik, pantaila egin denetik edo beste instalazio batzuk zerbitzuan jarri direnetik balio-txostena onetsi eta hurrengo urteko urtarrilaren 1era arte igarotako urte osoak, koadro honen arabera:

a) En el caso de la presa, de la pantalla y de las otras instalaciones, el coeficiente de antigüedad tendrá en cuenta los años completos transcurridos desde la fecha de construcción, última reforma o recrecimiento de la presa, realización de la pantalla o puesta en servicio de otras instalaciones, hasta el 1 de enero del año siguiente al de la aprobación de la correspondiente ponencia de valores, de acuerdo con el siguiente cuadro:

Antzinatasunaren arabera balio-galeraren koefizienteen koadroa

Cuadro de coeficientes de depreciación por antigüedad

| Urte osoak/años completos | Koefiziente zuzentzailea Coeficiente corrector |
|--|---|
| 20 urte edo gutxiago/Menor o igual a 20 años | 1,00 |
| 21 eta 40 urte bitartean/Entre 21 y 40 años | 0,90 |
| 41 eta 60 urte bitartean/Entre 41 y 60 años | 0,85 |
| 60 urte baino gehiago/Mas de 60 años | 0,80 |

b) Zentral hidroelektrikoen kasuan,

b) En el caso de las centrales hidroeléctricas, el



antzinatasunaren koefizienteak kontuan hartuko ditu zentral hidroelektrikoa zerbitzuan jarri edo berritu denetik balio-txostena onetsi eta hurrengo urteko urtarrilaren 1era arte igarotako urte osoak, koadro honen arabera:

coeficiente de antigüedad tendrá en cuenta los años completos transcurridos desde la fecha de la puesta en servicio o de renovación de la central hidroeléctrica, hasta el uno de enero del año siguiente al de aprobación de la correspondiente ponencia de valores, de acuerdo con el siguiente cuadro:

Antzinatasunaren arabeko balio-galeraren koefizienteen koadroa

Cuadro de coeficientes de depreciación por antigüedad

| Urte osoak/años completos | Koefiziente zuzentzailea Coeficiente corrector |
|----------------------------|---|
| 1 - 5 | 1,00 |
| 6 - 10 | 0,98 |
| 11 - 15 | 0,95 |
| 16 - 20 | 0,91 |
| 21 - 25 | 0,85 |
| 26 - 30 | 0,79 |
| 31 - 35 | 0,71 |
| 36 - 40 | 0,62 |
| 41 - 45 | 0,52 |
| 46 - 50 | 0,41 |
| 50 baino gehiago/Mas de 50 | 0,30 |

Ezaugarri bereziko ondasun higiezin baten barruan zentral hidroelektriko batzuk badaude, bakoitzari aplikatuko zaio zerbitzuan jarri den datari dagokion antzinatasunaren koefizientea. Era berean tratatuko dira independenteki eginiko ondoz ondoko handitzeak direla-eta zenbait fasetan eginiko zentralak.

Cuando varias centrales hidroeléctricas formen parte de un mismo bien de características especiales se aplicará a cada una de ellas el coeficiente de antigüedad que corresponda a la fecha de su puesta en servicio. El mismo tratamiento se dará a las centrales ejecutadas en varias fases por sucesivas ampliaciones



realizadas de forma independiente.

5. ATALA. BIDESARIA DUTEN AUTOBIDEAK, ERREPIDEAK ETA TUNELAK DIREN EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN BALIOA FINKATZEKO ARAUAK

SECCIÓN 5ª. NORMAS DE VALORACIÓN DE LOS BIENES INMUEBLES DE CARACTERÍSTICAS ESPECIALES AUTOPISTAS, CARRETERAS Y TÚNELES DE PEAJE

21. artikulua. *Bidesaria duten autobide, errepide eta tunelen balioa finkatzeko arauak.*

Artículo 21. *Normas para la valoración de autopistas, carreteras y túneles de peaje.*

1. Bidesaria duten autobide, errepide eta tunelen lurzorua eta eraikuntza bereziak balioztatzeko, 6. artikuluekin bat, autobideetarako kostu unitarioaren modulua aplikatuko da (MCUA), luzeraren arabera.

1. La valoración del suelo y de las construcciones singulares integrantes de las autopistas, carreteras y túneles de peaje se realizará, de acuerdo con el artículo 6, mediante la aplicación de un módulo de coste unitario de autopistas (MCUA) por longitud.

2. Kostu unitarioaren modulu hori zehazteko, datu hauek izango dira oinarri:

2. Para la determinación del módulo de coste unitario se tomarán como base los siguientes datos:

a) Eraikuntzaren kostu garbia (CNCA), katastro-balio berria indarrean jarri aurreko urteko urtarrilaren 1ari dagokiona, milaka eurotan adierazia. Kostu horretan, partida hauek sartuko dira: azterlan eta proiektuak, desjabetzeak edo lurzoruaren edo beste elementu edo eskubide batzuen eskuratzeko eta zerbitzuen berrezartzeko, eta obraren exekuzioa, zuzendaritza eta kontrola.

a) Coste neto de construcción (CNCA) referido al 1 de enero del año anterior al de entrada en vigor del nuevo valor catastral y expresado en miles de euros. Dicho coste estará integrado por las partidas de estudios y proyectos, expropiaciones o adquisiciones de suelo o de otros elementos o derechos y reposición de servicios, ejecución y dirección y control de obra.

Edonola ere, hauek sartuko dira eraikuntzaren

El coste neto de construcción incluirá, en todo



kostu garbian: atsedenlekuen, aparkalekuen eta osasun-laguntzarako guneen kostua, ordainlekuak, autobus-geralekuak eta beste helburu osagarri batzuetarako guneen kostua, mantentze-lanak eta pisatze-lanak egiteko eraikien kostua, eta zerbitzugune zein zerbitzubideen kostua. Kostu horretan ez dira sartuko bidesaria duten autobide, errepide edo tunelaren funtzionamendurako ezinbesteko ez diren zerbitzuguneei erantsitako eraikuntza konbentzionalak, administrazio-emakidaren espazio-eremuaren barruan daudenak. Eraikuntza horien artean, erregaien hornidurarako estazioak, hotelak, jatetxeak, konponketa-tailerrak eta antzeko beste batzuk daude. Eraikuntza horien balioa 6. artikuluan adierazitako prozeduraren arabera zehaztuko da.

b) Emakidaren barruko tartearen luzera osoa, kilometrotan adierazia.

c) Bidesaria ordaindu behar den tartearen luzera, kilometrotan adierazia.

d) Emakidaren hasiera-eguna eta amaiera-eguna.

e) Autobidean eginiko inbertsio osoa, administrazio-emakidaren araubideko autobideak eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko araudian definitua.

caso, el coste de áreas de descanso, estacionamiento, auxilio y atención médica, peaje, parada de autobuses y otros fines auxiliares o complementarios, así como los edificios de mantenimiento y pesaje y las áreas de servicio y vías de servicio. Dicho coste no incluirá el valor de las construcciones convencionales anejas a las áreas de servicio no indispensables para el funcionamiento de la autopista, carretera o túnel de peaje, tales como las estaciones de suministro de carburantes, hoteles, restaurantes, talleres de reparación y otras asimilables, situadas dentro del ámbito espacial de la concesión administrativa, valor que será determinado conforme al procedimiento a que se refiere el artículo 6.

b) Longitud total del tramo en concesión, expresada en kilómetros.

c) Longitud sujeta a peaje, expresada en kilómetros.

d) Fechas de inicio y finalización de la concesión.

e) Inversión total de la autopista, definida en la normativa reguladora de la construcción, conservación y explotación de autopistas en régimen de concesión administrativa.



3. Autobideetarako kostu unitarioaren modulua (**MCUA**) formula honen emaitza izango da (eta honela adieraziko da: hainbat euro kilometroko):

$MCUA = CNCA/emakidaren barruko tartearen luzera osoa$

4. Eragiketa honen biderkadura izango dira atal honetako higiezin lurzoruaren balio osoa eta bertan dauden eraikuntza berezien balio osoa: goiko zenbakian adierazitako modulua bider bidesaria ordaindu behar den tartearen luzera.

5. Goian xedatutakoa aplikatetik ateratzen den kostu unitarioaren moduluari beheko koadroaren koefizientea aplikatuko zaio, kontuan hartuta lehen aldiz noiz jarri den zerbitzuan. Katastro-balio berria indarrean jarri aurreko urteko urtarrilaren 1ari dagokio eraikuntzaren kostu garbiaren (**CNCA**) eta inbertsioaren kostuaren arteko zatiketaren emaitza.

3. El módulo de coste unitario de autopistas (**MCUA**), expresado en euros por kilómetro, será el resultante de la fórmula:

$MCUA = CNCA/longitud total en concesión$

4. El valor total del suelo de los inmuebles a que se refiere esta sección, así como el de las construcciones singulares enclavadas en él, será el producto del módulo a que se refiere el apartado anterior por la longitud sujeta a peaje.

5. Al módulo de coste unitario obtenido por aplicación de lo dispuesto en los apartados anteriores se le aplicará el coeficiente del cuadro siguiente, en función de la primera fecha de puesta en servicio. El resultado de la división entre el coste neto de construcción (**CNCA**) y el coste de la inversión estará referido al 1 de enero del año anterior al de entrada en vigor del nuevo valor catastral.



| Zerbitzuan jarri den eguna/ Fecha de puesta en servicio | Kostu garbia / inbertsioa / Coste neto / inversión | Koefiziente zuzentzailea/ Coeficiente corrector |
|--|---|--|
| 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen/ Anterior al 1 de enero de 1999 | -- | 1,00 |
| 1999ko urtarrilaren 1a eta gero/ Posterior al 1 de enero de 1999 | ≤ 0,9 | 0,80 |
| | > 0,9 | 0,70 |

6. Hau izango da higiezinaren katastro-balio osoa: goiko 4. eta 5. zenbakietan xedatutakoaren arabera lortutako balioaren eta 2. zenbakian adierazitako eraikuntza konbentzionalen balioaren arteko batura, kontuan hartuta merkatuarekiko koefizientea, bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

6. El valor catastral total del inmueble será el resultado de la suma del valor obtenido según lo dispuesto en los apartados 4 y 5 anteriores y del valor de las construcciones convencionales a que se refiere el apartado 2, afectado por el coeficiente de referencia al mercado, conforme establece la Disposición adicional segunda.

6. ATALA. AIREPORTUAK DIREN EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN BALIOA FINKATZEKO ARAUAK

SECCIÓN 6ª. NORMAS DE VALORACIÓN DE LOS BIENES INMUEBLES DE CARACTERÍSTICAS ESPECIALES AEROPUERTOS

22. artikulua. Aireportuen balioa finkatzeko arauak.

